

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2023ko maiatzak 5 · 1269 zenbakia



## UDABERRIKO JAIAK DENON GOZAMENERAKO

T. Etxebarria, 1  
943 20 42 99

Gehien  
maite  
duzuna  
babestu!

# BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:  
[eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

**EUKi**  
ASEGURUAK  
Gure familia beti  
babestuta egongo  
den **garantia**

# MGEP

MONDRAGON GO-ESKOLA POLITEKNIKO  
ETA NABIA-ARAZMENDIAREN, KOOP. I.

**"Lantokian izango ditugun lanak gehiago ezagutzeko, lehenengo eta bigarren mailan hainbat erronka egin ditugu"**



**Aimar Mijangos Barandiaran (Arrasate)**

Fabrikazio Mekanikoko Programazioaren Produktzioa  
Gol Mallako Heziketa Zikloa (GMHZ)

**Nola erabaki zenuen ziklo hau egitea?**

Mekanizatuko erdi maila egin ondoren jasateko bide zuzena da eta, Arrasaten bertan MGEP izandea, ez nuen zalantzarik izan. Honez gain, ziklo honetan egiten diren gauzak gustatzen zaidanak eta tokatu ondoren lan iribera asko daukatiko.

**Zergatik Mondragon Gol Eskola Politetnikoan (MGEP)?**

Arrasateko izanda, MGEP taldeak ezagutzen nuen eta nire lagunik bertan kasi dute. Fama ona du eta beti iriti ona izan dut MGEPri buruz. Bi urte hauetan, giro oso ona izan da, hainbat lekutako ikasleok izan ditut, hainbat orak egiteko aukera izan dut nahiz eta ikasleok batzuk lehenagotik ezagutzen nituen. Irakasleekin ere giro ona egon da.

**ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, ekipolanean erronkak eginer funtzio profesionalak lantzen dituzue. Nola molikatu zarete?**

Lantokian izango ditugun lanak gehiago ezagutzeko, lehen eta bigarren mailan hainbat erronka egin ditugu, metodologia hau ondo indutzean zait, baldin

**#LanerakoGertu**

egin behar diren gauzak lantzen ditelako, koordinazioa, elkarrekin kontrola, erantzukizuna bestelakoa.

Erronka batean, Coprecin egiten den pieza bat artetera eta nola fabrikatu proposatu genuen (instanpazio parametroak, azken mekanizazioak eta abar.) eta gero Coprecin joan ginen, ikustera benetan nola egiten den, Gainera, gure proposamena-erresako jendea erakutsi behar izan genion, eta berarekin esaten ziguten non ez gertatzen ondo. Lortu pisa gurean... baina egi da gero ere, horietako gauzak egin behariko ditugula eta hobe loba ahalki eta azkarren gaitzen hastea.

**Nobakoa izaten ari da DUAL esperientzia?**

DUAL Arrasateko IFAMen egiten ari naiz. Lehen egunetik, oso harreran ona egin dut langileekin. Enpresan gaita asko ikusten ari naiz, klasean teoriatz erakutsitako gauzak praktikara jartzen. DUAL egitea oso gomendagarria da, nire kasuan oso aukera ona izanda, eta ez naiz dimisioen erabaki hau hartu izanaz.

**Zer egitea nahiko zenuke aurrerantzean?**

Ziklo honetan momentuz nire formazioa bukatutzat emango nuke eta lanean hasita nahiko nuke, ahal izango baldin IFAMen bertan, enpresa ezagutzen dut eta gustura nabil bertan lanean.

**Bete du zikloak hasieran egin nahi zenuena?**

Bai, guztiz. Hasieran espero nuen bete da. Espero nuen baina gehiago esango nuke, DUAL aukera izan-dutitako eta aukera oso ona izan ditako.

**ATE IREKIAK: Maiatzak 6 10:00**

**Eman izena!**

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704



# zarelako para

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_

NAN \_\_\_\_\_

Jaiotze data \_\_\_\_\_

K/K zenbakia \_\_\_\_\_

**eta kitto!**  
euskara elkarte

**Urkizu 11**

943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkarte@etakitto.eus

## URTEKO KUOTAK

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatueak	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Julen Leturiondo musikari eibartarrak mugarrria ezarriko du 'Julen' proiektuan laster aterako duen lanarekin. 'Bihotzera giltza' izango da lau abesti izango dituen EP-aren izenburua eta Ermua Antzokian aurkeztuko du oso modu berezian hilaren 12an.



#### ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Ekaitz Juaristi

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

**Erredakzioa**

## Astean esanak



“200.000 eurotik gora zure jubilazioa atzeratzeagatik”. Espainiako Gobernuak iragarritakoa da eta, jakina, letra txikia dauka: jubilazio adinera heldu eta jarraitzen duzun urte bakoitzeko 12.000 euro inguru jasoko dituzu. Demagun 67 urte dituzula, jubilazio adin ofiziala; zenbat egin beharko zenuke lan albisteak iragartzen zituen 200.000 euro horiek irabazteko? Hamazazpi urte. Alegia, 85 urte izango zenituzkeela. Nork nahi du 85 urte arte lan egin? Bada, Japonian bada enpresa bat, Nojima, lan egiteko muga kendu duena: langileek hil arte ere lan egin dezakete.

**GOIZALDE LANDABASO, kazetaria**

Delitutzat hartzen diren jarreraren deskripzio objektibo eta zehatzak egitea badira Zuzenbide Penalaren ezaugarrietako garrantzitsuenak, zelan onartu daiteke, delitu sexualak izendatu behar dituenen, subjektibismo exageratuenaren babesle nagusi bihurtzea? Horrela, pertsona bat zigortu dezakete emakume bati piropo bat botatzeagatik, horretarako konsentimendurik ez badago; eta guztiz libre gera daiteke emakume horren genitaletan erretzen duen argizaria bota ezker, horretarako konsentimendua badu.

**JUAN MANUEL DE PRADA, idazlea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ONUTSA, ONUTSA, KAKUTSA** → Errefraua. Onegia izateak askotan ezer gutxirako balio duela adierazteko.

**OOH!** → Ganaduari gelditzeko agindua. “Aida eta ooh, tabernako atian gara!”.



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 5</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>ZAPATUA 6</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>DOMEKA 7</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>ASTELEHENA 8</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>MARTITZENA 9</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>EGUAZTENA 10</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 11</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>BARIXAKUA 12</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)

**GAUEZ BETI**, 2023an,  
Castaño (J. Etxebarria, 7)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Pedro Vivar Monje**. 92 urte. 2023-04-26.
- **Mari Carmen Agirre Berezibar**. 98 urte. 2023-04-28.
- **Susana Orrantia Gonzalez**. 89 urte. 2023-04-29.
- **Mari Tere Iriondo Elorza**. 83 urte. 2023-04-29.
- **Garbiñe Amorrosta Apraiz**. 86 urte. 2023-04-30.
- **Esteban Fernandez Silva**. 75 urte. 2023-05-02.



Eibarko Pentsionista Taldeak, Ernai gazte erakundeak eta Matraka eta Nalua talde feministek deitu dute bihar 12:00etan Untzagan hasiko den manifestazioa. SILBIA HERNANDEZ

## Osasungintza publikoaren aldeko manifestazioa egingo da bihar eguerdian

Eibarko Pentsionista Taldeak, Ernaik, Matrakak eta Naluak deituta, bihar (maiatzak 6) osasun sistema publikoaren aldeko manifestazioa egingo da, 12:00etan Untzagatik abiatuta. Martxoan egindako mobilizazioaren bideari jarraituz, Osakidetza arreta-zerbitzua geroz eta okerragoa dela salatu eta horri konponbidea ipintzeko eskatuko dute berriz ere.

Martitzen arratsaldean Arrate Kultur Elkartean egindako agerraldian esandakoari jarraituz, “martxoaren 23an, Eibarko hainbat kaletatik manifestazioa burutu genuen, Osasungintza Publikoaren aldeko aldarriak eginez. Amaieran, anbulatorio aurrean irakurri genuen adierazpenean azaldu genuen bezala, azken urteotan ikusten eta nozitzen ari gara Osakidetza nola ari diren eraisten, eta horren aurrean ezin gaitezke ezer egin gabe geratu”.

**Digestibo-kontsulta Eibartik kendu eta Mendarora eraman dute; eta bi oftalmologo gutxiago daude**

Martxoko mobilizazio hartan salatu zuten, espezialista batzuerkin hitzordua hartzeko hilabeteak zain egon behar zen, eta aste honetan esan dutenez, egoerak okerrera egin du, “Eibarko digestiboko kontsulta itxi dutelako eta aurrerantzean Mendarora joan beharko delako eta, gainera, hemendik aurrera bi oftalmologo gutxiago egongo direlako. Horrez gain, prentsan irakurri dugu Madrilek Komunitateei plan bat aurkeztu diela, bi mailako Osasungintza zerbitzua abian jartzeko: kontratupean dauden langileei arreta Mutuek (pribatuak) egingo die, eta merkatutik kanpo dauden pertsoneri Osasungintza publikoak. Osasungintza publikoa indartu beharrean, dirutza publikoa esku pribatuetara. Eta aurreko astean entzun eta ikusi egin ditugu Iñigo Urkulu eta Gotzone Sagardui esanez ez dela egia Osakidetza murrizketak daudenean, ez dela egia hainbat zerbitzu pribatizatu egin dituztenik, ez dela egia Osakidetza langileen lan baldintzak eskasak direnik... Eta, gainera, adierazi dute Osakidetza arreta zerbitzu diferitua martxan jarriko dutela, hau da, gaur eskatu, eta ez dakigu noiz arreta jaso”.

**Gotzone Sagardui entzatzat idatzia entregatuko dute**

Aipatutako guzti horrengatik, Eibarko herritarrei dei egiten diete bihar egingo den manifestaziora batzera, “Osasungintza publikoa defendatzera eta pribatizazioak salatzera. Zapatuko manifestazioaren amaieran, egoera hau guztia salatuko duen eta erantzunak eskatuko dituen idatzkia anbulatorioko arduradunei eskura emango diegu, eurek Gotzone Sagardui Osasungintzako Sailburuari helarazi diezaioten”.



## San Andres eliza itxi behar izan dute, teilatua erortzeko arriskua dagoelako

Teilatuaren egitura egoera txarrean dagoela eta, San Andres elizak ateak itxi behar izan ditu, ezbeharren bat gertatu aurretik, herritarren segurtasuna bermatze aldera. Zapatuan itxi zuten eliza eta oraindik ez dakite noiz zabaldu ahal izango duten. Hori dela eta, mezak eta hiletak herriko beste eliza batzuetara eraman behar izan dituzte. Pedro Laskurain parrokoaren berbetan, “eliza egoera larrian dago, teilatuaren egitura ez da bere

pisua ondo banatzen ari eta ez dago ondo egonkortuta. Horren ondorioz, ganga ez dago finkatuta eta harriren bat askatu daiteke”. Gainera, gogoratu behar da urtarrilean 40 kiloko harri bat erori zela ganatik eta konpondu berri zegoen organoa kaltetu zuela. Oraingoan, luizi gehiago izatea ekar dezakeen arriskua dela eta, sarbidea aldi baterako eten egingo da, kaltetutako zatiak konpondu eta arriskurik ez dagoela ziurtatu arte.

## Herriko kale batzuk asfaltatzeko lanak hasi ziren atzo Amañan

Atzo bertan ipini zuten abian aurtengo asfaltatze-plana. Horren baitan, Karlos Elgezua, Asola Igartza, Urkizu eta Ego Gain kaleak zolatu-tuko dituzte, baita Ixua eta Usartza bitarteko errepide zatia. Lan horien kostua 135.712 eurokoa da eta Yarritu SA enpresak egingo ditu. Asfaltatze-lanak Amaña auzoko Karlos Elgezua kalean hasi dira, “8. zenbakiaren eta Ziriako Agirre kalearekiko loturaren arteko zatian, 750 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera batean”. Eta atzo hasi ziren, baita ere, Asola Igartza asfaltatzen, 500 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera batean, kale horrek Tiburtzio Anituarekin bat egiten duen noranzko biko gune batean. Urkizuri dagokionez, kalearen zati osoan zehar egingo da asfaltatzea, Donostia-Bilbo noranzkoan oinezkoen bi pasabide goratuen arteko tartean; guztira 560 m<sup>2</sup> baino gehiagoko azalera jardungo da eta, trafikoari ez eragiteko, domeka gauean egingo dira lanak. Hala, gau horretan kalea trafikoarentzat moztuko dute, Ermurako noranzkoan.

<p><b>FUNEUSKADI</b> Funeraria mugikorra</p> <p><b>TANATORIO EIBAR</b></p>	<p><b>FUNERARIA MUGICA</b> Funeraria mugikorra</p> <p><b>TANATORIO ERREKATORIO ELGOIBAR</b></p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 <a href="http://www.funuskadi.com">www.funuskadi.com</a></p>	
<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xalilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otaola hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marques de Valdespina, 18</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

**kili klik**  
argazkilaritza fotografia

kili\_klik

kilimaksortzen@gmail.com - 646114443 - Indalecio Ojanguren 1 behe

**ek!**

Zure publizitatea  
herriko aldizkarian

**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus



## Estaziño eta Azitain arteko trenbide-zatia estaltzeak zarata murriztuko duela diote

“Eibar eta Azitain geltokien arteko trenbide-zatiaren azterlan akustikoa” izenekoaren emaitzen arabera, trenbidearen gaineko pasealekua eraikitzeko proiektuak “eragin positiboa izango du zarata-mailetan. Izan ere, murriztu egingo dira, bai pasealekuaren plataformak berak trenbide ondo-ko fatxadetan eragingo duen pantaila-efektuagatik, bai hesi akustikoen efektua duten altuera txikiko alboko hesien eraginagatik”. Hala esan zuten Alberto Albistegi Obretako zinegotziak eta Jon Iraola alkateak, aurreko barixakuan egingako prentsaurrekoan. Txostena

ACC Centro de Acústica Aplicada enpresak egin du, Euskal Trenbide Sareak esleituta, eta aurreko astean aurkeztu zituzten ondorioak udaletxean. Azterlana egiteko lau tartetan (geltokiaren inguruan, Barakaldo kaleko 27. zenbakitik Electrociclosoke etxeen inguruan, Eguzki-Begin eta Azitaingo geltokian) hainbat neurketa egin dituzte eta, ondorioztatu dutenez, zarata gehien gauez egoten da, salgaien trenek eraginda. Hala ere, proiektuaren eraginpean dauden eraikin guztietan Kalitate Akustikoaren Helburuak betetzen direla nabarmendu zuten.

## Hauteskunde-mahai batzuk tokiz aldatuko dira maiatzaren 28 hauteskundeetan

Udal eta Batzar Orokorretarako maiatzaren 28ko hauteskundeak direla-eta, hainbat aldaketa izango dira hauteskunde-mahaietan, Udaletik jakinarazi dutenez: “Betidanik San Andres eskolan —bai areto nagusian bai jangelan— zein Coliseo antzokian jarri izan diren

mahaiak Errebal eraikinera, A eta B lokaletara lekualdatuko dira, eta sarbidea Merkatu kaletik eta Muza-tegi kaletik egingo da. Eta Amañako lokal parrokiaketako eta Ego-Gaineko egoitzako mahaiak Torrekuako anbulatorio zaharrera lekualdatuko dira”.



## Bidezko Merkataritzaren Eguna ospatuko da maiatzaren 13an Untzagan

Maiatzeko bigarren domekan ospatzen da Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguna, eta Proyde-Proe-ga eta Egoaizia Gobernu Kanpoko Erakundeek, beste batzuekin elkarlanean (Aldatze, La Salle Isasi eta Azitain, Aldatze ikastetxea...) egun horren inguruko egitaraua prestatu dute maiatzaren 13rako. Ospakizuna Untzaga plazan izango da 10:00etatik 14:30etara. Azaldu dutenez, “aurten sukaldaritzarekin lotu da Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguna eta, horregatik, hainbat ekintza egongo dira gai hau jorratzeko. Ludoteka Zorionak-ek antolatutako haurrentzako tailerra 11:00etan hasiko da eta parte hartzen dutenek mantalak apainduko dituzte”. Izena emateko, formularioa bete beharko da, online (<https://forms.gle/xgQ-ruk6KjpxLVazA9>). Horrez gain, Farmacook-eko Zalao Otaduk ere Bidezko Merkataritzako osagaiekin egingako errezetak elkarbanatuko ditu, eta dastatzeko aukera ere egongo da. Gainera hiru saskiren zozketa, herritarrentzat kontsulta, Bidezko Merkataritzako produktuak erosteko postua eta beste hainbat egingo dira.





## NANaren eta Pasaportearen Bulegoa Eibarren egotearekin pozik dago EAJ-PNV

Josu Mendicute Eibarko EAJ-PNV taldeko bozeramaileak NANaren eta Pasaportearen Bulegoa Eibarren egoteak duen garrantzia azpimarratu zuen aurreko barixakuan emandako prentsaurrekoan: “Bulegoak urtetik urtera dokumentu gehiago izapidetu ditu. Eta hori horrela da Eibarren kokapen estrategikoagatik eta bulegoko langileak beren lana oso ondo egiten ari direlako. Oso pozik gaude bulego hori udaletxean dugulako”. Eman

zituena datuen arabera, EAJ-PNVk aurreko legegaldian lortutako NANA eta pasaportea izapidetzeko bulegoak 48 udalerritako 350.000 bat biztanleri ematen die zerbitzua eta, 2018ko urtarrilean zabaldu zenetik, 55.762 dokumentu, 48.716 nortasun-agiri eta 7.046 pasaporte izapidetu ditu guztira. Jeltzalearen berbetan, “NANaren bulegoa berreskuratzeko da EAJren lanaren adibidea, Eibarrek erakargarritasuna berreskuratzeko”.

## Mobilizazio jendetsua egin zen Eibarko kaleetan Maiatzaren Lehenean

“Egiteko beste mundu bat!” goiburuari jarraituta, manifestazioa eta ekitaldi politikoa egin ziren astelehenean Eibarren. LAB sindikatuak lantokietan, kalean zein erakundeetan borrokatzearen aldeko deia egin zuen aurten Maiatzaren Lehenean. Egunerako egitaraua biribiltzeko, herri-bazkaria eta bazkaloste musikatua egin ziren, udaletxeko arkupeetan. Manifestazioan eta amaierako ekitaldian grabatutako irudiekin bideoa igo dugu gure YouTube kanalera.



## Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduera bereziak antolatu dituzte

Maiatzaren 18a Museoen Nazioarteko Eguna dela eta, hori ospatzeko, Eibarko Armagintzaren Museorako sarrera doan izango da maiatzaren 17tik 28ra. Egun horretarako aukeratu den goiburua “Museoak, jasangarritasuna eta ongizatea” da. Horrekin batera, “Tailerretik bulegora. Eibarko produktuak” izeneko erakusketa zabalduko dute maiatzaren 18an bertan, 19:00etan. Irailaren 1era

arte egongo da ikusteko moduan. Maiatzaren 20an, bestalde, doako bisita gidatuak eskainiko dituzte erakusketa iraunkorrera: euskarazkoa 17:00etan izango da eta gatzelerazkoa, berriz, 18:30ean. Interesa izanez gero, aurretik izena eman behar da, museoa@eibar.eus helbidera mezua idatzita. Plaza kopurua mugatuta dago eta talde bakoitzeko 20 lagun onartuko dituzte, gehienez.



AITOR BUENDIA

## Slow ibilbidea Arcos de Quejanako “La Robleda de los Sueños”etik

Oraingoan Aiarako haranera gerturatuko gara, Bizkaiarekin muga egiten duen Arabako lurraldean. Kexaa-Quejanan *Slow Food* ikuspegi batetik erabat txunditu egiten gaituzten bi alderdi elkartzen dira: artea, kultura eta gastronomia. Ia gauza bera dira, egia esan. Gaur lehenengoan jarriko dugu arreta.

Angel San Mamed “Arcos de Quejana” hotel-jatetxeko gidariak gonbidatuta, La Robleda de los Sueños ezagutuko dugu lehenik, bere haritzetan artelanak batzen dituen herrialde honetako baso bisitagarri bakarra. 2020 urtean “Arcos de Quejana”-k 25 urte bete zituen, eta Euskadin bizi den Allarizko galiziar honek pentsatu zuen Baso Solidarioa kolore biziarekin jantzi zitekeela, eta, gainera, bere haritz apainduak hainbat kausa sozialekin lotu zitekeela, babestu eta sustatu beharreko kausak bere adarren azpian hartzeko. Esan eta egin; gaur egun, 26 haritz, 26 margolari eta ongintzako 26 elkarte/fundazio dira proiektua osatzen dutenak. Sonia García da komisarioa eta Jose Maria Pinto margolaria da “errudun” nagusia, bere artearekin harizti hori betetzen duten pertsonak biltzeagatik.

Bide batez, dagoeneko ikus eta uki daiteke, neurri batean, ikuskizun hori, “La Robleda de los Sueños” arte-liburu originalari esker. Liburu horretan basoko margolarien lana, pintatzeko unean zitu zen sentsazioak, beren obraren interpretazioa eta ideia nola ernatu zen ilustratzen da. Jose Maria Arenaza Historiako katedradunak eta Massimiliano Tonelli arte katedradunak hartu dute parte artisten lanari egindako omenaldian.

Eta bertan gaudenez, “Arcos de Quejana” jatetxeko menu gastronomikoa dastatzea baino gauza hobirik ez dago. *Slow Food* ziurtagiria dauka, sasoiko produktuen alde egindako apostuagatik. Jatetxe hau XVII. mendeko jauregi bat da, artisten pintura-lanekin eta aldi baterako pintura-erakusketekin. Eta adi!, hotelaren kanpoaldean “Japoniari omenaldia” murala eta Santxotena artista ospetsuaren “Flor de Vida” eskultura-iturri handia aurkituko ditugu. Eta laster Kexaa-Quejanako Monumentu Multzoa ere kaleratuko da.

Ba hori; artea eta gastronomia. Azken horretaz beste egun batean hitz egingo dugu...

(Oharra: Eibarko Elkarte Artistikoko taldea joateko aukera ona dela iruditzen zait. Benetan merezi du)

**“Artea, kultura  
eta gastronomia.  
Eibarko Elkarte  
Artistikoko taldea  
joateko aukera ona  
dela iruditzen zait”**

# Zapatu eta domekarako plan biribila prestatu dute Santa Kurutz jaiak ospatzeko

Eguaztena Santa Kurutz eguna izan zela eta, urteroko ohiturari jarraituta kanpaiekin eta bertako ermitan egin zen mezarekin ospatu zuten eguna eta, betiko lez, astebururako laga dituzte jai-egitarauko jarduera gehienak, zapatu eta domekarako.

Horrela, bihar, goizeko 11:00etako meza amaitu eta jarraian, hamaiketako egingo dute ermita inguruan, Oier Balzola eta Unai Andonegi trikitilariak eta Usartza txistulari taldekoek girotuta. Pixkat geroago, 12:30ean hasiko dira haurrentzako jolasak eta 13:00ean, berriz, herri kirolen txanda izango da. Aurten Karmele Gisasola, Uxue Ansorregi, Julen Kañamares eta Ibai Soroa arituko dira, nor baino nor. Bazkaria, bestalde, Ixua jatetxean izango da, 14:30ean, eta bazkalostea alaitzeko erromeria egingo dute, Oier Balzolak eta Unai Andonegik eskainiko dituzten doinuen erritmora. Eta, eguna agurtu aurretik, 19:30etik aurrera esku-pilota txapelketa jokatu dute Arrateko frontoian (barruska). Txapeldunak saria izango du.

Domekarako plana goizean goizetik hasiko da, 09:45ean Urkizuko iturritik Santa Kurutzeraino egingo den igoerarekin (izen-ematea Urkizuko iturrian bertan egin ahal izango da, 09:30ean). Parte hartzera animatzen diren guztien artean saria zozketatu dute amaieran. Ermitako kanpakiak irauli eta gero, 11:00etan hasiko da meza nagusia eta, meza ostean, piskolabisa emango diete bertaratzen diren guztiei. Gainera, trikitilariak musikarekin alaituko dute ermita ingurua. Eguerdiko 12:30ean, berriz, umeentzat ikuskizuna eskainiko du Potx magoak. Jarraian, 13:00ean, auzoko joko "tradizional" bat hasiko da: txapel-jaurtiketa. Nahi duten guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Eta, bazkaltzeko ordurako agurtuko dituzte aurtengo jaiak, 14:30ak aldera, ermitako kanpi-hotsez.



**Zapatuan jokatu dira herri kirolak, 13:00etik aurrera, Karmele Gisasola, Uxue Ansorregi, Julen Kañamares eta Ibai Soroa aizkolarien parte-hartzearekin**



# “Eskualde honek baditu behar adina zimendu jarduera interesgarriak aurrera eramateko”

Iñigo Perez-Arregui • BPTD Enpresa Elkarteko lehendakari berria



BPTD Enpresa Elkarteko presidente berria da Iñigo Perez-Arregui. Debarrena eskualdeko enpresari-talde baten ekimenari esker sortu zen BPTD Enpresen Elkarte (Basque Precision Technology District) 2019ko maiatzaren 8an. Elkarte BPTD strategiaren parte da eta barrutian industria-jarduera berria sortzen lagundu nahi du, gure lurraldea nazioarteko erreferente gisa kokatzeko, doikuntza-teknologiei dagokienez. Elkartaren erronkei buruz eta eskualde mailan lankidetzan aritzeko beharrari buruz egin digu berba.

**I**ñigo Perez-Arreguik Frantziako eskolan ikasi zuen eta hortik, berak dioen bezala, “halabeharrez” bukatu zuen gero Donostiako Ingeniariaren Eskolan. Hala ere, ez da damutzen, “horrela gertatzen direnak dira orain zauden lekura eramaten zaituztenak” dio. Unibertsitatetik atera bezain laster, “burdinaren munduan” hasi zen lanean. Lan egin zuen lehen enpresa Andoaingo Laborde Hermanos izan zen; geroago Neco S.A. bihurtuko zen eta bertan ebaketa tresnak egiten zituzten. Fresadoras Lagun eta Reiner e Hijos enpresatik igaro ondoren, 2000. urtean EPCn lanean hasi zen, justu trantsizio unean. Amerikarrek ordura arte Guisasaola zena erosi eta EPC izena eman zioten. “Estrategia-aldaketa bortitz eta beharrezkoa; izan ere, halakorik gertatu ez balitz, ez dakit gaur egun EPC bizirik egongo litzatekeen. Prozesuaren eta produktuaren ikuspegitik, egiteko modua asko aldatu da. Horretan amerikarrek esperientzia handiagoa zuten”, esan digu. Gaur egun, enpresak dituzte Mexikon, Estatu Batuetan eta Eibarren.

## **EPCKo kudeatzailea izateaz gain, orain BPTDko presidentea ere bazara. Nola ekin diozu?**

Ilusio handiz eta gogoz betea. Ziur nago eskualde honek badituela behar adina zimendu jarduera interesgarriak aurrera eramateko. Teknologia, ezagutza, egitura, kultura eta punta-puntako sare teknologikoa dugu, eta hori aprobetxatu eta baloratu egin behar da. Bada garaia gure indarguneetan elkar laguntzeko eta gaur egungo erronka berriei erantzuteko. Lan handia dago egiteko, baina eskualde mailan, zalan-tzarik gabe, badago lehengairik proiektu garrantzitsuak gauzatzeko.

## **Erronkei buruz ari garela, zein erronkei egin behar dio aurre BPTD Elkarteak 2023 honetan?**

Epe labur eta ertainean globalizazioa erronka handia dela uste dut enpresentzat. Merkatuaren ikuspegitik, gure sektorean, merkatu-bolumenean muga nabarmena dugu. Globalizazioak alderdi positibo asko dauzka: hazteko aukera ematen du, teknologia berriak eskuratzeko aukera, ezagutza handiagoa... baina beste



lehiakide batzuei ere atek irekitzen dizkie eta hori faktore baldintzatzailea ere bada.

Fabrikatzaile handiei hornitzen dizkiegun enpresek segurtasun-bermeak behar ditugu hornitzailearen aldetik. Kalitateaz eta egiteko gaitasunaz gain, finantza-jasangarritasuna eta jasangarritasun teknologikoa eskatzen dizkigute.

Iraunkortasuna, zentzurik zabalenean ulertuta, erronka handia izango da enpresentzat. Horregatik, sinergiak bilatu behar ditugu, eta, batez ere, erakarpen-poloak sendotu.

Gainera, globalizazioak eta jasangarritasunak dakartzan erronkei erantzuteko masa kritikoa behar dugu. Horrek, aldi berean, gure eskualdea erakargarria izateko beharra dakar, gure enpresek behar dituzten profesional onenak sortu eta mantentzea ahalbidetuz. Talentua sortzea eta hari eustea bezain garrantzitsua da. Hori funtsezkoa da. Alde horretatik, BPTDk lan asko du egiteko.

**Lankidetzak eta lankidetzaz-izpirituak funtsezkoak da**

**“Iraunkortasuna, zentzurik zabalenean ulertuta, erronka handia izango da enpresentzat. Horregatik, sinergiak bilatu behar ditugu”**

**elkartean. Zergatik uste duzu hori hain garrantzitsua dela ETEentzat?**

Bezeroek irtenbide globalak bilatzen dituzte, eta irtenbide horiek ezagutza teknikoetara mugatzen ez diren alderdiek ematen dituzte. Inguruko enpresek eskaintzen ditugun zerbitzuen batura interesatzen zaie bezeroei. Lankidetzak beharrezkoak dira proiektu berrien erakarpen-poloak izatera iristeko eta, bide



**“Hemen kultura, ezagutza dago, eskualde honek ‘burdina’ landu du aspalditik”**

**“Lankidetzan aritzeko modua bilatu eta aurkitu behar dugu, eskuzabaltasun pixka bat erakutsiz”**

batez, industria-jarduera gehiago sortzeko, horrek dakarren guztiarekin.

**Eta nola uste duzu laguntzen duela BPTD Enpresa Elkarteak lurraldearen lehiakortasunean?**

Bultzatzeko gai izan behar gara. Hemen elkarteak funtsezko zeregina du, kanpora saltzeko. Lurraldean egiteko gai garenaren irudi orokorra sortu behar dugu. Denok ditugu gure bereizgarri korporatiboak, baina niretzat funtsezkoena kanpoan aurkezteko gai izatea da, hemen ditugun teknologia eta baliabide guztiak biltzen dituen erakunde gisa.

**Seguru zuk esperientzia duzula lankidetzan...**

Oraindik gogoratzen naiz Eibarren egin genuen lehen proiektu bereizle eta garrantzitsuaz, 2004an izan zen. Proiektu nahiko berritzailea, gaur egun oraindik funtzionatzen jarraitzen duena. Zehazki, bi metro eta erdiko luzera zuen pieza bakar batean espeka-zuhaitzak mekanizatu nahi ziren prozesu jarraitu batean eta tartean lantoki gutxiarekin, hau da, ahalik eta esku gutxiarekin bidean, eta lortu genuen.

Prozesu berri hori gure bezeroen eskura jarri genuenean, gure jakintzatik haratago zihuan zerbitzu bat eskaintzeko aukera eman zigun, eskaintza globalagoa. Eta onena da eskaintza hori gehienez ere 50 km baino gutxiagora dagoela, hala nola zentro teknologikoak, prestakuntza zentroak, ekipo fabrikatzaileak, etab. Azken finean, oso sare osatua eta lehiakorra daukagu hemen.

Berritot, uste osoa dut badugula besteek normalean ez duten zerbait: hemen kultura, ezagutza dago, eskualde honek “burdina” landu du aspalditik, eta, azkenean, teknologia batekin edo beste batekin, prest gaude irtenbide lehiakorrek eta kalitatezkoak emateko.

**Batasunak indarra egiten duela uste duenetakoa zara?**

Zalantzarik gabe, haratago ere joango naiteke. Gaur egungo testuinguruan, masa kritikorik gabe, bizirauteko aukerak urriak dira. Lankidetzan aritzeko modua bilatu eta aurkitu behar dugu, eskuzabaltasun pixka bat erakutsiz. Modu honetan lurralde erreferente izaten jarraitu ahal izango dugu, bai nazio mailan, bai nazioartean. Proiektuan % 100ean sinesten dut.

# 58. Euskal Jaia, hamabost egun barru

Aurtengo Euskal Jaia aurreratuta etorriko zaigu. Udal Hauteskondeek hartuko dute hilabete honetako azken domeka eta, horren eraginez, gure herriko ohiko jaiek ere aldaketak izango dituzte. Horrela, maiatzaren azken asteburua izaten bada Euskal Jaiaren ardatza, oraingoan astebete aurreratuko dira ekimenak eta 19tik 21erako asteburua izango dugu “kalera baserritar jantzita” irteteko proposena.

**O**hikoari eutsiz, aspaldi hasi ziren Eibarko Klub Deportiboko Kultura Batzordekoak aurtengo Euskal Jaiako motorrak berotzen. Otsailaren 9an abiatu zuten une honetan azken txanpan dagoen Eibarko Euskal Jaiko Pala Txapelketa. Bigarren edizio honetan guztira 24 bikotek dihardute parte hartzen, liga formatoan eta bi multzotan banatuta. Eibarko 12 bikote alde batetik eta beste 12 federatuen mailako txapelketan, aurrera egin dute torneo biek astero partiduak jokatuz Astelena frontoian. Klub Deportiboko Pala komisiorearen eskutik antolatutako torneoaren finalak hilaren 20an, zapatuan, jokatuko dira, 13:30ean hasi eta 16:30ak arte. Larrain-dantza ikastaroak, bestalde, askoz ere urte gehiago daramatza Euskal Jaiaren egitarauaren barruan. Apirilaren 19an hasi zituzten klase horiek eta eguaztene-ro biltzen dira, 19:00etatik aurrera, Arrateko Andra Mari Ikastetxean. Maiatzaren 17ra arte hor dago zabalik aukera Larrain-dantzaren pausuak berreskuratzeko.



**Aitor Huergoren diskoa**

Behin hilaren hirugarren astean sartuta, maiatzaren 16an, martitzenean, talogintza ikastaroa egingo da, Soko Baskaranek eskainiko duen saio bakarrean. Arratsaldeko 18:30ean emango dute Arrate Kultur Elkartean, baina bertan parte hartzeko izena eman behar da aldeztu aurretik [arratekultu@gmail.com](mailto:arratekultu@gmail.com) helbidean edo, bestela, 638284912 telefono zenbakira deituz. Handik bi egunera, hilaren 18an, Aitor Huergo abeslariak "Barruko Paisaiak" bere diskoaren aurkezpen kontzertua eskainiko du Kultu Tabernan. Eguen horretako ekimen hori 20:00etan hasiko da.

Barixakura helduta, arratsalde bera iragarri dute Euskal Jaiko antolatuzaileek. 17:00etatik 19:00etara Kalian Jolasian ekimenak umeendako jokoekin alaituko du Bizikleta Plazaren ingurunea; euria egingo balu, eszenategia Errebalera eramango dute. Eibarko Udalak antolatutako ekitaldi horren lekukoa hartuko du aurtengo egitarauko berritasunetako batek: Eibarko Euskalgintzaren eskutik datorren Tantan ez Tantanek. Orain arte beti zapatu eguerdian egin izan den euskararen aldeko ekimenak Euskal Jaian integratu dute eta barixakura arratsaldera pasatu. "Urkusuko iturriraxan gantxilla urez bete eta Untzagarraino eramango da, euskararen alde egiteko eibartar guztiok konbokatuta gagozen ekimenian" diote Eibarko Euskalgintzatik. Kutsu guztiz herrikoia duen kalejira hori 19:00etan abiatuko da eta handik bi ordura, 21:00etan, amaituko, "lagun izango duen animazioarekin".

Afaldu ostean, gaueko 23:00etan, Untzagan kokatuko duten karpak hartuko du protagonismoa Burutik taldeak eskainiko duen kontzertuarekin. Musika emanaldi horretako lehen zatia besterik ez du beteko



Aitor Huergo abeslariak "Barruko Paisaiak" bere diskoaren aurkezpena egingo du hilaren 18an (eguna) Kultu tabernan.

talde horrek, jarraian, 00:45etik aurrera, gure herriko Mugi Panderoakoek hartuko batiote lekukoa. Oheratu aurretik, euskaraz eta euskal musikaz gozatzeko programazio ezin hobea gozatu.

**Azoka eta herri-afaria**

Behin zapatura helduta, hilaren 20ko programazioa goiz-goizetik hasiko da, ohiko Artisau eta Baserritarren Azokarekin. 10:00etan zabalduko dira azokako postuak, betiko lez, Toribio Etxebarria kalean. Arratsaldeko 14:00ak arte iraungo dute bertan prestatuko diren ekimenek. Bost baserri osatuko dute Eibarko

baserritarren azokako ordezkari-tza, Debemenen eskutik: Sosola, ardi-gazta eta ogi ekologikoa saltzen; Loixola, barazkiak eskaintzeko; Mandiola Gañekua, ardi-gazta eta barazkiak salgai jarritz; Egotza, ahuntz-gaztarekin; eta Barrundi, barazkiekin. Eta herriko eta kanpoko artisauen azokan Eibart elkarteko partaide diren hogeitik gora egile izango dira.

Postuetatik kanpo ere izango da animazio nahiko goiz osoan. Haste-ko, "eta herri-kirolak gazteen artean hedatzeko eta zaletuak sortzeko asmoz", Eibar BHI-ko ikasleen arteko "erronkak" izango du bere tarte. Jarraian, 12:00etatik aurrera, herri-kirolariekin eta bertsolariekin izango dugu hitzordua. Ibon Iza esatariaren aginduetara izango dira Garbiñe Lopez de Uralde, Jon Lapazaran, Jon Loiola eta Jose Martin Buztinza "Tubi", "besteak beste, lasto eta ingudea jasotzen, trontza-lanean eta lasto jaurtiketa eginez". Bertsuak botatzen, bestalde, Jokin Bergara eta Eneko Beretxinaga arituko dira. Goiz osoan zehar talo-postua egongo da, Gure Esku Dago ekimeneko eskutik; eta 13:00etan trikipotea hasiko da kaleetatik, Eibarko Triki-

**>>> Aurtengo dantza-jaialdian Ermuko Txindurri eta Portugaleteko Elai Alai dantza taldeak izango dira Kezkarekin batera**



tilariak giroa ezarri 15:00ak arte. 13:30ean abiatuko dira II. Euskal Jaiko Pala Txapelketaren finalak, jaialdia 16:30ak aldera amaitzeko.

Arratsaldera pasatu eta herri-afarira heldu aurretik, elektrotxarngaren kale-animazioa izango da GOTx taldearen eskutik, 19:15etik 21:30era. Ordu horretan Untzagako karpak “ateak zabalduko dizkiolako Biziminak elkarrekin prestatuko duen herri-afariari”. Bertan izateko tiketak salgai daude dagoeneko Klub Deportiboan (baita hurrengo eguneko herri-bazkarirako ere): “Prezioa iazko bera da, hau da, 12 euro ikasle eta langabetuentzat; eta 15 eurokoa langile eta dirua dutenen kasuetan”. Afariaren amaieran eta postreetan abestuko diren kantuak Kittu musika taldeak joko ditu eta, egunari amaiera emateko, Jainagak eta Narbaizak urtero eskaintzen diguten erromeriak ipiniko gaitu jauzika.

### Dantzan geratu barik

Horrelakoa izaten da domekako eguna, Euskal Jaiko azkena.

## >>> Zapatuko kantu-afarirako eta domekako herri-bazkarirako tiketak salgai daude dagoeneko Deporren

Eguerdian bertan abiatuko da hileren 21eko kalejira Urkizutik, eta dantza ikuskizuneko talde guztiek Untzagaraino bidea egingo dute, musika doinuez lagunduta. “Hor izango dira gaiteroak, joaldunak, Eisbarko Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilariak...”, diote antolatzaileek. Ordu erdiko ibilbide hori eginda, 12:30ean Euskal Jaiko Dantza Jaialdia hasiko da Untzagan, oraingoan hiru euskal talde protagonista bihurturik: gure herriko Kezka dantza taldearekin



batera, Ermuko Txindurri eta Portugaleteko Elai Alai izango dira euren onenak erakusten.

Jarraian herri-bazkariaren ordua iritsiko da, 14:30ean, hori ere Biziminak elkarrekin eskutik. Eta bazkal-ostean, azkenik, Inguma taldeak eskainiko digun erromeriak hartuko du plaza 17:30etik aurrera, betiko larrain-dantza popular biei lekuko pasatu aurretik. Untzaga plazan bertan dantzatuko den lehenengoa 19:30ean hasiko da, eta handik ordu batera helduko zaio txanda Deportivoan dantzatuko dutenari. Espero dezagun ezetz, baina euria egingo balu domeka horretan? Bada, eguerdiko dantza jaialdia Errebaleira pasatuko litzateke. Eta erromeria eta larrain-dantzek Untzagako karpak izango lukete kokaleku.

Ahaztu baino lehen, eta antolatzaileek dioten bezala, “asteburu osoan, ekimenak dauden bitartean behintzat, barra egongo da, Ernai eta Nalua taldeen eskutik”. Badakizue, beraz, joan prestatzen zuen baserritar jantziak! Kaletik egun horietan dotore-dotore ibiltzeko!!



Erromeria eta Larrain-dantza saio biek amaituko dira aurtengo Euskal Jaikak.

# Gusto guztietarako dantzek bete zituzten kaleak

Apirilaren 29an ospatzen da urtero, mundu osoan, Dantzaren Nazioarteko Eguna eta, horren aitzakiarekin, Eibarko dantza eskoletako ikasle eta irakasleek herriko kaleak bete zituzten barixakuan, era guztietako emanaldiekin. Ballet Eibarres, Biraka, NeleDantza, Kaxa, Kezka, Koa, Pagatxa, Untzaga eta Beheko Tokiko jubilatua aritu ziren, batetik bestera dantzatzeko, iluntzeraino. Eskaini zituzten emankizunak ikusita, gure herrian dantza osasun betean dagoela argi geratu zen.

Argazki bilduma ikusteko eskaneatu





JULEN LETURIONDO • Musikaria

# “Ermuko kontzertua mugarrria izango da”

Laster ikusiko du argia ‘Bihotzera giltza’ diskoak, Julen Leturiondorem lehen EP-ak. Eibartarrak Ermua Antzokian aurkeztuko du lana, hilaren 12an, 20:30ean, eta ikuskizun “oso berezia” prestatu du horretarako. ‘Benetan zabiz?’ podcasteko Aitziber Gradosek eta Malen Altunak emango diote hasiera saioari eta, gero, ‘Julen’ proiektuaz bere esentzian gozatzeko aukera egongo da.

**L**eturiondok orain dela hiru urte eman zion hasiera ‘Julen’ proiektuari. Irudia, diseinua, musika eta beste adierazpen artistiko batzuk batzen dira bertan eta ‘Bihotzera giltza’ lanean loratuko da guztiz.

## Zer aurreratu dezakezu ‘Bihotzera giltza’ lanari buruz?

Lau kanta bakarrik izango dituen EP-a izango da, baina gauza berezi asko sortu ditugu horren inguruan. Musika modu digitalean bakarrik aurkitu ahal izango da eta fisikoan beste formatu baten aurkeztuko dugu, gehiago gozatzeko eta ulertzeko.

## Zein formatutan?

Liburutxo bat izango da, nahiko paper arraroarekin. 40 orri inguru izango ditu eta ‘Julen’ proiektua zer den laburbiltzen da bertan. Batzuetan azaldu izan dugu, baina zuzenekoetan ez bazara izan, zaila da antzematea. Liburuan gure ibilbidea kontatuko dugu, kantuei irudia emango diegu eta sortu dugun mundu hau zer den azalduko dugu.

## Zuzentzat musika da bihotzean sartzeko giltza?

Izan daiteke. Diskoan lau abesti ditugunez, kantu bakoitzak forma, espazio eta testuinguru jakin bat hartu du. Bihotza gorputzaren funtsezko organoa denez, eta proiektu honen funtsa bihotza denez, kantuak bertara heltzeko bideak

edo giltzak bezala identifikatu ditugu. Izenburua ‘Eskean Kristo’ taldearen ‘Deabrua’ abestitik hartuta dago. “Hartu nire bihotzera giltza” dio abestiak, eta hortik abiatu gara.

## Musikaren munduan bizitza osoa egin eta gero, zer da zuzentzat diskoa kale-ratzea?

‘Julen’ proiektuaren mugarrria da. Oso modu naturalean sortu da. Hau da, bideak horretara eraman nau. Azken urte honetan zuzenekoak eskaintzen egon gara batez ere, baina gorputzak eduki gehiago sortzea eskatzen zigun. Izan ere, orain arte bi kantu besterik ez ditut kaleratu eta horrekin oso zaila zen jarraitzea eta jendeak proiektua ulertzea. Diskoa baino, mugarrria Ermuan eskainiko dudan zuzenekoak izango dela esango nuke. Eraul taldeko Asier Beramendirekin kontzertu guztietan jotzen dudan Eraulen abesti bat joko dugu, Euskal Herriko ahots berezietako bat duen Esanezin taldeko Ianire Aranzabe izango dugu, baita azken urtean askotan ikusi dugun Mugan taldeko Pablo Zurutuza ere, eta Idoia Azurmendirekin oso abesti berezia prestatu dugu. Gainera, argi teknikari jakin batekin, eszenografia batekin eta abarrekin joko dudan lehen aldiz izango da. Dena oso neurtuta egongo da eta horrek pixka bat beldurtzen nau, baina horrelako zuzeneko bat eskaintzeko helburua nuen.

Bideoa  
ikus  
eta  
entzun nahi?





Arlo artistiko ezberdinak batzen dituen proiektua da 'Julen'. JULEN

**“Liburuan gure ibilbidea kontatuko dugu, kantuei irudia emango diegu eta sortu dugun mundu hau zer den azalduko dugu”**

### **Hiru urte daramatzazu 'Julen' proiektuarekin. Nolako izan da bidea?**

'Julen' ez zen hasi musika proiektu soil bat bezala. Kontzertu bat eskaintzeko aukera iritsi zitzaidan eta, abestiak egin da nituenez, aurrera egin nuen. Orduan, banda nola osatu begiratzan hasi nintzen, irudia zaintzen, eta abar. Agian beste talde batzuek hasieratik dute argi zein forma edukiko eta zer egingo duten, baina guk pixkanaka sortu dugu. Gero Kutxa Kultur beka jaso nuen eta gehiago egin nuen aurrera. Hori bai, neure burua horrela sentitu dut beti: “Zer egiten dut nik hemen? Zein da nire helburua musikaren munduan?”. Askok kostatu zait neure burua musikari bezala ikustea. Izan ere, batetik bideoklip baten premierre-a egin dezaket areto baten, bestetik zuzeneko bat eskaintzen dut diskoa atera baino lehen... Gauzak aldrebes egiten ditudala dirudi eta jendea iruditu ahal

zaio, baina ibilbidea horrela izan da eta horretan sinesten dut.

### **Zenbat lagun zabiltzate 'Julen' proiektuan?**

Bost musikari finko gaude (Sara Alonso, teklatura; Eñaut Armentia, baxua; Josu Cascan, bateria; Asier Cascan, gitarra; eta ni neu, ahotsa eta pianoa), Aitzol Hidalgo da soinu-teknikaria, eta argazkilaria eta diseinatzailea Maitane Campos. Gero, gonbidatuez gain, kontzertu honetarako jende gehiago batu da: liburuxkaren eta kartelaren diseinuan Mikel Tristan, argi-teknikariaren izena oraindik ezin dut esan, gonbidatuak izango ditugu, Lorea Diaz arkitektoak eszenografia landuko du, Natalia beti dut lagun manager lanak egiten... Talde handia sortu dugu eta nahiko zoroa da guztia koadratzea, baina 'Julen'-ek horrela hartu du gaur egun duen handitasuna. Profesional handiak dira eta laguntasunetik sortu den zerbait da.

# Ugandako haurren bizitzak salbatzen dituen musika

Jakin badakigu musika gure bizitzetako atal garrantzitsu bat dela eta askoren bizitzak bete ere egiten dituela. Triste gaudenean alaitzen laguntzen digu, urduri gaudenean lasaitzeko balio dezake, zerbait nola esan ez dakigunean sentitzen duguna azaleratzeko ahalmena ere badu... Eta, batzuetan, aipatutako horiek baino askoz gehiago lortzeko balio dezake, baita bizitzak salbatzeko ere. Ugandatik datorren Aba Taano taldeak bezala.



**B**ihar gospel musikaz gozatzeko aukera egongo da, Eibartik kanpora joan barik, *Música para salvar vidas* proiektu humanitarioaren eskutik 20:15ean Karmengo Amaren elizan (Karmelitan) hasiko den kontzertuan. Ugandako Aba Taano taldeak, gospel estiloko kantuekin batera, Afrikako beste doinu batzuk, baita pop estiloko erritmoak ere eskainiko ditu, a capella abestuta. Aba Taano boskotea Kampalan (Uganda) sortu zen, baina handik kanpora aritzen dira kantuan. Taldeak mila kontzertu baino gehiago eman ditu Europako 14 herrialdetan, tartean Vatikanon, eta nazioarte mailako 11 sari jaso ditu. Zortzi album kaleratu ditu eta Afrikako ahotsekin liburutegi birtuala ere badu. Gainera, Roque Bañosen “The House” pelikularen soinu-bandan ere hartu du parte.

Une honetan Europan batetik bestera dabilta kontzertuak ematen, eta maiatzean Euskal Herriko hainbat tokitan arituko dira, bihar Eibarren egingo duten bezala. Horrelako kontzertuetatik lortzen duten dirua *Música para salvar vidas* izeneko proiektua finantzatzeko erabiltzen da. Horregatik, nahiz eta sarrerarik ez duten kobratuko, saioaren amaieran jendeari dirua eskatuko zaio, bakoitzak ahal duenarekin lagundu dezan. Proiektu humanitarioaren arduradunek azaldu digutenez, “2005. urtean abiatu genuen proiektua,



Ugandako bost gazte hauek a capella kantatzen dute. Mila kontzertu baino gehiago egin dituzte Europako herrialde askotan eta sari garrantzitsuak irabazi dituzte jaialdi ezberdinetan.

Ugandan erabat bakarrik zeuden haurrei laguntzeko asmoz. Eurak zain-tzeko familia barik, aurrera egiteko laguntza ematen ahalegintzen gara, beraien kabuz bizitzeko prest egon arte. Gaur egun 60 bat neska-mutil daude gurekin, elkarrekin bizitzen eta ikasten. Gehienak adingabeak dira. Beraientzat etxea dena Kirekan dago, Kampalatik gertu, eta han bertan ikasten dute: haurrek lehen hezkuntza, bigarrena, klase espezializatuak eta unibertsitate mailako ikasketak egiten dituzte.

#### Nahi duten lanbidean aritu ahal izateko hezten

*Música para salvar vidas* GKE txiki bat da, Kirekan (Kampala) sortua Espainiako bazkide eta aitabitxi batzuen laguntzari esker. Haur eta gazte ugandarrei beraien herrialdean etorkizun duina izaten laguntzen diete: “Ez ditugu bertan behera uzten benetan beren kabuz moldatu ahal izan arte. Horregatik dauzkagu haur txikiak, baina baita neska-mutil nerabeak eta gazteak ere. Erabat hezten ditugu, beraien familia-ingurunean jaso ezin duten maitasuna eta prestakuntza emanez, eta irteera profesionala aurkitzen laguntzen diegu. Horretarako, mota guztietako irakasgaietan trebatzaileak, psikologoak eta kontseilariak ditugu. Gaur egun, neska-mutil asko ditugu medikuntzan, turismoan, teknologia berrietan eta beste lanbide askotan lan egiteko prest. Harro gaude 18 urte hauetan lortutakoarekin. Izan ere, oso gogorra da prestakuntzarik eza eta miseriaren ondorioak horren latzak diren herrialde batean bizirautea. Hala ere, lagundu ditugunetako asko ari dira lortzen eta gaur egun lanean ari dira, erizain, laborategiko teknikari, jostun, kazetari edo sukaldari bezala”.

**Taldeak ematen dituen kontzertuei esker biltzen duten dirua 'Música para salvar vidas' proiektura bideratzen dute, Ugandako haurrei laguntzeko**

Proiektuari buruz  
gehiago jakiteko:





Eibar "hazten" ari da?. ESTEBAN VOUILLOZ



## Zesta-punta masterclass-a emango dute etzi Ipuruako frontoian

Domeka honetan, goizeko 11:00etatik 13:00ak arte, Zesta Punta Guuk Experienceren bosgarren geldialdia egingo dute, oraingo honetan gure herriko Ipurua kiroldegiko frontoian. Zesta-punta belaunaldi berrietara hurbildu nahian, Jon Zabala "Bullet"-en eskutik egiten den saioan, Julen del Rio puntista gasteiztarrak gidatuko du ekimena.

Bi ordutan garatuko duten Zesta Punta Guuk Experience ekimenean parte hartuko dutenek "kirol horretako bitxikeria guztiak ezagutuko dituzte, koordinazio, tiro eta jauzi jokoak eginez", saskiarekin praktikatzeko aukera izateaz gain. 8 urtetik gorako guztiei dago zabaldua, baina, toki-kopurua mugatua denez, aurretik izena eman behar da <https://www.guuk.com/eus/zesta-punta>



Jon Zabala "Bullet"-en eskutik eskaintzen dihardute Zesta Punta Guuk Experience.

helbidean. Egitasmoa otsailaren 26an abiatu zuten Club Deportivo Bilbao pilotalekuan eta, ondoren, Gasteizetik eta Donostiatik pasatu

da. Apirilean Iruñean egon zen eta, behin Eibarkoa pasatuta, maiatzaren 21ean Durangora eramango dute eta ekainaren 4an Gernikara iritsiko da.

## Ekainaren 3ko Eibarko Mendi Itzulia prestatzen hasi dira

Bi urtetik behin ekainaren hasieran egiten den gure herria inguratzen duten mendiz mendiko ibilbidearen nondik norakoak prestatzen dihardu Klub Deportiboko mendi batzordea. Tontorrez tontor Eibarko perimetro osoa hartzen duen ekimenaren hitzordua ekainaren 3an izango da eta "oraingoan nobeda-

deak ere izango dira, bai ibilbide diseinu zati batzuetan bai antolakuntzan ere, beti ere jasangarritasuna hobetzeko asmoz".

Batzordekoen mendi irteerei dagokionez, 22 mendizalek osatutako taldeak Artzaintza Naturbidearen 18. etapa osatu zuen, Orduña portutik Barriga de Losara doan ibil-

bidea egiteko. Solariega, Artezabal eta Belabide tontorrek igo zituzten eta baita "sei metro inguruko perimetroa duen Barriga de Losako haritza ikusi ere". Eta, azken zubia aprobetxatuz Iparraldera egindako irteeran, Okabe (Nafarroa Behereko garaiena), Gatarre eta Alba gainak zapaldu zituzten, "Nafarroaren eguna ospatzeaz gain".

Bihar, bestalde, Artzaintza Naturbidearen beste etapa bat osatuko dute, Fresno de Losa eta Lalastraren artekoa, Arrayuelas gailurrera igota, ibilbide guztia Valderejoko natura parkean. Hilaren 27an, azkenik, egitarauan 20rako iragarritako zegoen Naturbide horretako beste etapa bat egingo dute, Lalastra eta San Millan de San Zadornil artean, Santa Ana gailurra egiteko: "Euskal Jaia delata, astebete atzeratu dugu".





## Urbateko bederatzi jokalarik Gipuzkoako selekzioarekin Zaragozako nazioartekoan

Zaragozan jokatuak Poloamigos U16 kadete mailako nazioarteko txapelketan Urbat waterpolo taldeko bederatzi jokalarik izan ziren parte hartzen Gipuzkoako selekzioarekin. Mutilen mailan lau eibartar izan ziren selekzioan (Peio Bergaretxe, Unai Bisquert, Euker Kortabarría eta Ander Sola) eta, txapelketa bikai-

na eginez, laugarren postuan amaitu zuten hamahiru talderen artean. Nesken mailan jokatu zuen Gipuzkoako selekzioarekin Urbateko bost jokalarik izan ziren (Ane Alberdi, Garazi Azpilikueta, Naroa Hernandez, Itxaso Molina eta June Padilla) eta, infantilez jositako taldea osatu arren, txapelketa ezin duinagoa egin zuten.

## Vitoria filialak igotzeko lehen urratsa egitea bilatuko du domekan Unben

Behin Liga amaituta, Federazio 2. Mailara igotzeko azken faseari ekin dio Eibar FT-ko filialak. Aurreko asteburuan jokatuak lehen kanporaketako partiduan Deustun husna berdindu eta gero, itzulera-ko neur-



keta izango da Unben domekan, 15:30ean hasita. Kanporaketa hori gaituz gero, Vitoriakoek Basconia eta Leioaren artekoan irabazten duenaren kontra jokatu beharko dute (lehen partiduan Basconiak 1-0 irabazi zuen), horko itzulera-ko partidua ere Unben jokatzeko -Vitoria aurretik sailkatu zelako ligan-. Eta, kanporaketa horretan ere aurrera egitea lortzen badu, azken kanporaketari egin beharko dio aurre: hor Federazioko 3. Mailako 18 multzoetan sailkatutakoek hartuko dute parte, bi partiduko kanporaketa bakarrean, azkenean erabakitze-ko zientzuk izango diren maila igoko duten bederatzi taldeak.

## Maiatzaren 13an urpekarien bataioa egingo dute Ipuruako kiroldegian

Eibarko Klub Deportiboko Urpekaritza batzordekoek antolatuta, eta urterokoari jarraituz, bataioa egingo dute maiatzaren 13an, zapatuan, Ipuruako kiroldegiko igerrilekuan. Ekitaldia arratsaldeko 13:00etatik 16:00ak arte egingo da eta, antolatzaileek diotenez, "ez da behar inolako esperientziarik". Plazak mugatuak direnez, bertan parte hartzeko lehenbailehen deitzea komeni da; epea hilaren 10ean itxiko da. Kontakturako telefono zenbakia honakoa da: 629 453 080 (Arrate).



Bataioa "aurretik esperientziarik behar ez duen esperientzia aberasgarria da".

## Deporreko atletak geratu barik dihardute lehian azken asteotan

Klub Deportiboko atleta gazteen denboraldia bero bero dago, Gipuzkoako Txapelketaren jardunaldi biak jokatu eta gero. Irungoa eguraldiarengatik bertan behera geratu ondoren, txapelketa Eibarren eta Donostian jokatu eta mugatu zen. Hor eibartarrek bederatzi domina eta zazpi ohorezko postu eskuratu zituzten. Eibarko jardunaldian bost domina bereganatu zituzten Deporrekok: Unai Alvarez 150 metroetan nagusitu zen, bigarren izan ziren bera (150 metro hesietan) eta Sonia Mendy pisuarekin, eta hirugarren Elene Astigarraga pisuarekin eta Haizea Magunazelaia jabalina jaurtiketan. Eta Donostiakoan beste lau: Nahia Astigarraga AN Vortex jaurtiketan



nagusitu zen, Irati Astigarraga bigarren izan zen proba berean, Unai Alvarez 60 metroetan bezala, eta Mirren Garciak hirugarren amaitu zuen Vortex jaurtiketan. Infantil mailako taldekako txapelketa jokatu da Ordizian asteburu honetan eta Eibar BHI izenean nesken taldeak hartuko du parte, zortzi kideekin.

Federatuen mailara pasatuta, 18 atletekin osatutako klubeko mutilen taldeak laugarren postua eskuratu zuen 2. Mailako Euskadiko Klub Txapelketan. Beste bi eibar-

tar izan dira baita Real Sociedad klubarekin Sorian eta Atletico San Sebastianekin Iruñean parte hartzen 1. mailako liga barruan, biak ere jabalina jaurtitzen.

Amaitzeko, Durangon jokatu 20 urtetik azpiko mailako Euskadiko Konbinatuen Txapelketan, Imanol Egidazuk urrea irabazi zuen eta Kepa Marquezek zilarra; han izan ziren baita brontzea lortu zuen Ugaitz Gartzia eta Manex Gisasola, azken bi horiek 5.000 metroko iraupen lasterketan.

## Jaz taldea bederatzigarren duatloiko Gipuzkoako Txapelketan



Aurreko domekan jokatu dako distantzia estandarreko Duatloiko Gipuzkoako Txapelketan gure herriko taldea ordezkatu zuen boskoteak bederatzigarren postua eskuratu zuen

taldekako sailkapenean. Antxintxiketan 10 kilometro egin ondoren, 40 osatu zituzten bizikleta gainean eta, amaitzeko, beste 5 korrika eginez. Jaz Eibarko onena Iker Goikoetxea

izan zen 25. postuan (02:07:04), bere atzetik Alex Higuera 65.a izateko (02:16:08), Roberto Gartzia 79. postuan helmugaratuz (02:21:04), Aitor Fernandez pixka bat geroago, 84. tokian sartzeko (02:22:34), eta Joseba Mikel Ortega 114. sailkatzeko (02:32:59). Roberto Gartzia eta Joseba Mikel Ortega beteranoak euren mailetako onenen artean geratu ziren, V2 mailako seigarren eta 11. izateko, hurrenez hurren.

Bestalde, Idoia Uruñelak bere lehen duatloia egin zuen aurreko zapatuan Azkoitian jokatu dako superesprint modalitateko proban, lasterketa bikaina eginez azkenean hirugarren postuan sailkatzeko.



## Haurrentzat bereziki pentsatutako antzezlanak Eskolarteko Erakusketan

Martitzenean hasi zen Debarrenen Eskolarteko 38. Antzerki Erakusketa. Hilaren 24ra bitartean, gutzira sei antzezlan eskainiko dituzte Coliseo antzokian. Lehen bi saioak aste honetan izan dira, baina oraindik beste lau lan ikusteko aukera izango da, guztiak euskaraz. Datorren martitzenean, Bizkaiko Benetan Be taldeak “Batetik bestera” lana taularatuko du Coliseo antzokian, 15:00etan, Lehen Hezkuntzako 1., 2., eta 3. mailako ikasleentzat. Umorezko ikuskizuna da, eta giza migrazioei buruz hitz egiten da, hegaztien migrazioak adibide gisa hartuta.

### “Tren geltokia” Eibar BHI-ko ikasleekin

Programak “Tren Geltokia” lanarekin egingo du aurrea. Antzezlanaren lau saio eskainiko dituzte, horietako bi maiatzaren 10ean (10:00etan eta 19:00etan) eta beste biak 12an (10:00etan eta 12:00etan). Arratsaldeko saioa publiko guztientzat zabalik egongo da eta sarrerak 5 euro balio du. Andrea Covadonga eibartarrak idatzitako eta zuzendutako lana da eta Eibar BHiko 32 ikaslek hartuko dute parte bertan.

Hilaren 11n, berriz, “Katagorriaren elezaharra” antzeztuko du La Baldufa Teatre taldeak, Lehen Hezkuntzako 1., 2., eta 3. mailako ikasleentzat. Coliseon izango da, 15:00etan. Eta, erakusketarekin amaitzeko, hilaren 24an “Harri salda” lana antzeztuko dute Coliseon, 15:00etan, 1., 2. eta 3. mailako ikasleentzat. Bere herrialdetik ihes egin behar duen neskatoren istorioa da, egun batean zerua, kometen orde, hegazkinez betetzen delako. Bidaia luze baten ondoren, leku ezezagun batera iritsi da. Itxura batean, leku horretan, mundu guztiak du denetik, baina inork ez du berarekin ezer partekatu nahi.



## Rol-jokoaren inguruko jardunaldia egingo da bihar

Odissea elkartearen eskutik, bihar egun osoan, 10:30etik 21:00etara bitartean “Héroes de grafito” izeneko jardura egongo da martxan Erreal Plazan, rol-jokoak bertatik bertara ezagutu nahi dituzten guztientzat: “Era guztietako abenturak bizi ahal izango dira, zientzia-fikzioak, beldurrezkoak, magiari, aztikeriari edo intrigari buruzko istorio klasikoak, euskaraz eta gaztelaniaz, eta ikusle guztiei zuzenduta”, diote antolatzaileek. Besteak beste, 8-12 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta dagoen “Magissa”, Star Wars-en munduan girotuta dagoen “La fuerza del destino” eta beste joko batzuetan aritzeko aukera egongo da. Informazio gehiago nahi izanez gero, asociacionodisea.com web orrian begiratu daiteke edo, bestela, contacto.odiseaeibar@gmail.com helbidera idatzi.



## Easo emakumeen abesbatzak Sostoarekin abestuko du

Domekan, 19:30ean, Donostiako Easo emakumeen abesbatzak Eibaren kantatuko du, Karmengo Amaren elizan (Karmelitan). Sostoa abesbatzarekin batera emango du kontzertu korala.



## “Harreman” zirku eta musika ikuskizuna gaur Errebalen

Gaur 19:00etan hasiko da Errebal Plazan “Harreman”, Zirkozaurre konpainiaren ikuskizuna. Lan honek zirku eta euskal musika tradizionala elkartzen ditu, “itxura desberdineko bi mundu, baina gauza asko partekatzen dituztenak. Sustraietatik, identitatetik bidaia bat proposatzen du lanak. Eta, ibilbide horretan, zirkuo teknikak berrasmatu egiten dira, gure melodia ezagunenekin besarkatzeko eta eszena emozioz eta konplizitatez betetzeko”. Jorge Silvestre eta Gorka Peiriren zuzendaritzapean, zirku-artistak, dantzariak eta musikariak arituko dira dohainik disfrutatu ahal izango den kale-ikuskizun hori eskaintzen.



## Usartza Txistulari Taldearen kontzertu berezia domekan

Domeka honetan, 12:45ean, kontzertua eskainiko du udaletxeko arkupeetan Usartza Txistulari Taldeak. Eibarko bi tronpa-joleren kolaborazio berezia aurreikusita dago: Rodolfo Epelde eta Iñaki Orbeagoz tronpa musika-tresnarekin arituko dira. Kontzertuaren egitaraua mota ezberdinetako doinuez osatuta dago eta, berezitasun bezela, “Trompa alpina” batekin arituko da Rodolfo Epelde. Alpeetako tronpa edo adarra deitzen da eta Suitzako aintzinako tronpa luze bat da. Tronpa horrek 1,5 eta 3,60 metro arteko luzeera dauka.



## Argazkilaritza Maiatzean-eko erakusketak zabalduko dira

Gaur hasiko da Argazkilaritza Maiatzean, herriko erakustoki ezberdinetan hilaren 28ra arte ikusgai egongo diren erakusketak zabaltzearekin batera. Klub Deportiboko argazkilaritza-batzordeak antolatutako egitaraua Portalean estreinatuko dute, 18:30ean, lau erakusketa aldi berean inauguratuta: Enric de Santos, Natxo Zenborain, Rober Astorgano eta 2022an Indalecio Ojanguren Saria irabazi zuen Aitor Aranaren lanak ikusi ahaliko dira bertan. Jarraian, Topalekura joango dira, Oskar Bagliettoren “Paisaiaren nire begiradak” izenekoa zabaltzera. Eta, aurtengo egitaraua osatzeko, beste hiru erakusketa gehiago zabalduko dituzte: Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldearen lanak Portalea tabernan ikusi ahal izango dira; “Argizaiola 2022” lehiaketako argazkiak, Depor tabernan; eta “XL. Nazioarteko Gipuzkoa Saria” izenburuko erakusketa, Untzagako jubilatutuek.

Horrez gain, gaur zabalduko diren bi erakusketaren egileak diren Enric de Santosek eta Natxo Zenborainek hitzaldia emango dute bihar, 10:00etatik aurrera Portaleko areto nagusian. Biak dira goi-mailako argazkilariak, mundu mailan oso ezagunak, eta nekez errepikatuko da biei batera entzuterako joateko horrelako aukerarik. Ez galtzeko modukoa, beraz.

## Rocio giroko jaialdia Amañan

Biharko “Feria Rociera” jaialdia antolatu dute “Amaña es la caña” elkarteok, auzoa girotzeko. Eguerdian hasiko dira jaia ospatzen, egun osorako prestatu duten egitarauarekin: dantza emanaldiak (Laune, Aire Andaluz eta Rosa), bazkaria, Los Primos, moda desfilea eta dantzaldia, besteak beste.



**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

5	1				8		
		6		5	8		3
				4	6		7
8			4	3			
4		1			9		2
			1	9			8
6		2	4				
9			2	7	3		
		7				2	5

5	1				8		
		6		5	8		3
				4	6		7
8			4	3			
4		1			9		2
			1	9			8
6		2	4				
9			2	7	3		
		7				2	5

soluzioa

**S U D O K U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

			8	4			
3	2			9	8	7	
8				5			
5	9		3				
			8		6	1	
	1					2	
3	6	2				9	5
		7	9				

soluzioa

3	2						
8				5			
5	9		3				
			8		6	1	
	1					2	
3	6	2				9	5
		7	9				



**L A B I R I N T O A**



## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **6an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **7an:** 17:00, 20:00
- **8an:** 19:30

**"¡Vaya vacaciones!"**  
UMOREZKOA



2022/Espainia/100'  
Zuzendaria: Victor Garcia Leon  
Aktoreak: Toni Acosta, Ernesto Sevilla, Tito Valverde  
**Komedia/Familia girokoa**

### 2 ARETOA

- **6an:** 22:30
- **7an:** 17:00
- **8an:** 19:30

**"Novembre"**  
THRILLER-A




2022/Frantzia/105'  
Zuzendaria: Cedric Jimenez  
Aktoreak: Jean Dujardin, Anais Demoustier, Sandrine Kiberlain  
**Gertatutakoa/Terrorismoa**

### 2 ARETOA

- **6an:** 17:00, 19:45
- **7an:** 20:00

**"20.000 especies de abejas"**  
DRAMATIKOA



2023/EAE/129'  
Zuzendaria: Estibalitz Urresola  
Aktoreak: Sofia Otero, Patricia Lopez, Ane Gabarain  
**Transexualitatea/Haurtzarora**

### ANTZOKIA

- **6an:** 16:30, 19:30, 22:30
- **7an:** 17:00, 20:00
- **8an:** 19:30

**"Guardianes de la galaxia"**  
ABENTURAZKOA



2023/AEB/150'  
Zuzendaria: James Gunn  
Aktoreak: Chris Pratt, Zoe Saldana, Dave Bautista  
**Zientzia-fikzioa/Komikia**



## Nerea Gallastegi Aizpurua

**8. URTEURRENA**  
2015/05/05

"Gure bihotzetan jarraitzen duzu"

- ZURE FAMILIA -



## Esteban Plazaola Zubizarreta




**6. URTEURRENA**  
2017/05/03

"Sei urte joan zinela, baina gure artean eta gure bihotzetan zaude eta egongo zara beti"

- ZURE EMAZTEA ETA ALABAK -



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eu



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **KIRA**, hillaen 3an urtetxua bete dozulako. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Ekhiren partetik. Segi oin arte bezain alai.



Zorionak, **JULEN!** Maiatzaren 10ian urtetxua beteko dozu-eta. Asko maite zaittugu, gure ortzadar polittori. Patxo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MAIALEN**, domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MALEN!!!** Eguaztenian 7 urte bete zenduazena-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **MAREN!** Maiatzaren 3an 6 urte bete dozuz-eta!! Patxo potolo potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, **EKHI!!** Bixar 2 urtetxo beteko dozuz-eta!! Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez!!



Zorionak, **JULEN!!** Gure etxeko bizipozak hillaen 3an 2 urte bete dittu-eta. Musu potolo bat famelixakuen partez. Asko maite zaittugu, txapeldun!



**Bixente Arrizabalaga Alberdi "Txertudi"**

2023/04/24

**"Lana eta familia. Bizitza oso bat besteei eskainia"**



**ESKERRIK ASKO, AITXITXA**

**Susana Orrantia Gonzalez**

2023/04/29



**MILESKER**  
une latz hauetan gurekin egon zareten lagun eta familiako guztioi.



**- ETXEKOAK -**

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisu salgai Zuloagatarren kalean. 7. solairua. Fatxada eta teilatua berriztu berriak. 235.000 euro. 660378181.

### 1.2. Errentan

- Matrimonioak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Erreferentziakin. 667060292.
- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsaldez).
- Etxebizitza alokagai Eibar erdialdean. 688667994..

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 665508721.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 640881328.
- Neska eskaintzen da nagusiak (habilitazio-ziurtagiria) edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Kanpoko etxe-zerbitzuan esperientzia duen neska donostiarra Eibarko etxeetan lan egiteko eskaintzen da. Euskal sukaldaritza tradizionala eta osasuneko. Mendekotasun-egoeran daudenei laguntzeko teknikari titulua. 699473761. [anaulia71@gmail.com](mailto:anaulia71@gmail.com)

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. 605363057.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin, eta baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 631687276.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 631511111.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Orduka. 613744564.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 603169890.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 688627689.
- Emakumea eskaintzen da pisu, hotel edo egoitzetako kamarera bezala eta baita garbiketarako egiteko ere. Orduka. 6171763558.
- Emakumea eskaintzen da administratibo bezala, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 624910331.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak (ziurtagiri sozio-sanitarioa) zaintzeko. Orduka. Autoarekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauz ere. 612583671.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak (ziurtagiri sozio-sanitarioa) edo umeak zaintzeko. 688779828.

## 4.2. Langile bila

- Elgoibarko baserri baten edadetua zaintzeko pertsona behar da. Kurso sozio-sanitarioa eginda eta paperekin. Interna. 653723095.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.4. Bestelakoak

- Maiatzaren 7an Ficobara (Correos-eko OPE) joango den autoduna edo talde baten bila nabil, elkarrekin joateko. 650113060.

# AURREMATRIKULA MAIATZAREN 8tik 26ra

IKASTETXE PUBLIKO  
DUAKOIA



UNI  
EIBAR  
ERMUA



F  
M  
A  
I



EGOKITZAPEN FISIKOA

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



NAZIOARTEKO MERKATARITZA

GARRAIO ETA LOGISTIKA

MERKATARITZA JARDUERAK



ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

+ *Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arrotaldean.*

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA



SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA

SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA



ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA  
INFORMAZIOAREN  
TEKNOLOGIEN  
INGURUNEETAN

[www.uni.eus](http://www.uni.eus)

Ostia Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | [idazkaritza@uni.eus](mailto:idazkaritza@uni.eus) | [uni.eus](http://uni.eus)

## MGEP

MONDRAGON GO IKOLA POLITEKNIKA  
JOSE MARIA AROZEMENAGARRA, 400P. I.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

| Sareko Informatika Sistemien Administrazioa

| Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

| Sistema Elektrotekniko **Berritai**  
eta Automatizatuak

| Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren  
Programazioa

| Mekatronika Industriala

| Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio ikastaroa

| Industria Marentzearen Digitalizazioa **Berritai**

» Oñati gestio  
heziketa

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

| Salmenten Kudeaketa

| Administrazio eta Finantzak

#LanerakoGertu

Eman izena!

MGEP: 664298683 // 664298704

Oñati gestio heziketa: 943718009



INSKRIPZIO-DATAK: Maiatzak 8tik 26ra

[mondragon.edu/lanbideheziketa](http://mondragon.edu/lanbideheziketa)



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**

Doktorea

Odontologian Lizenziatua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Unibertsitate Aduia Aho Kirurgian,  
Periodontian, implantologian,  
Leongo Unibertsitatea.  
Diplomatua Aho Kirurgian,  
Bartzelonako Unibertsitatea.  
Hortz-Estetikan Diplomatua,  
Madrigo Unibertsitate Konplutentsea.  
Hortz-Estetikan Diplomatua,  
Autran Institutua, Bartzelona.  
Etegabeko Formakuntza,  
New York-eko Unibertsitatea.  
Okklusioan Graduondoa,  
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:  
**8:00**etatik **22:00**etara  
Zapatuetan:  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziario-planak

**JARRAI IEZAGUZU**

 **Facebooken:** Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)